

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

EIBARKO UDALA

Alkatetzaren Ebazpena. Udaltzaingoko Agente lanposturako lan-poltsa onartzea.

Gobernu Batzarrek 2025eko maiatzaren 23an Udaltzaingoa-ren lanpostuetarako lan-poltsa bat egiteko oinarri orokorrak onartu zituen eta 2025eko ekainaren 4ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ziren.

Merezimenduen balorazioa amaituta, epaimahaiak ebazpen proposamena helarazten dio Alkatetzari, Udaltzaingoko agenteen lanpostuetarako bitarteko funtzionarioak izendatzeko lan-poltsa behin betiko onartzeko, izangai bakoitzak lortutako puntuazioaren araberrako hurrenkeran. Lan-poltsa Eibarko Udalaren webgunean dago argitaratuta (<https://www.eibar.eus/eu/tramiteak/enplegua-beharginen-aukeraketa/indarrean-dauden-lan-poltsak>).

Hori guztia kontutan hartuta, 2025eko abenduaren 19an sinatutako alkatetza ebazpen bidez ebatzi da:

Lehen. Udaltzaingoaren lanpostuetarako, bitarteko funtzionarioak izendatzeko lan-poltsa onartzea, izangai bakoitzak lortutako puntuazio-ordenaren arabera.

Bigarrena. Erabaki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Eibarko Udaleko web orrian argitaratzea.

Akordio honen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Donostiako Administrazio Auzietarako Epaitegian, iragarki hau jakinarazi edota argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epe barruan, bidezkotzat jo daitekeen beste edozein errekurtso jartzeko eragozpenik gabe.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke ebazpena eman duen organoaren aurrean, jakinarazi edota argitaratzen den unetik hilabeteko epean.

Eibar, 2025eko abenduaren 19a.—Jon Iraola Iriondo, alkatea.
(8833)

AYUNTAMIENTO DE EIBAR

Resolución de Alcaldía. Aprobación de la bolsa de trabajo para el puesto de Agente de la Policía local.

La Junta de Gobierno de 23 de mayo de 2025 aprobó las bases generales para la elaboración de una bolsa de trabajo para puestos de Agente de la Policía Local del Ayuntamiento de Eibar las cuales fueron publicadas en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa el 4 de junio de 2025.

Finalizada la valoración de méritos, el Tribunal eleva propuesta de resolución a la Alcaldía para la aprobación definitiva de la bolsa de trabajo para el nombramiento de personal funcionario interino para puestos de Agente de la Policía Municipal, por orden de puntuación obtenida por cada aspirante. La bolsa de trabajo está publicada en la página web del Ayuntamiento de Eibar (<https://www.eibar.eus/es/tramites/empleo-seleccion-de-personal/bolsas-de-trabajo-vigentes>).

En base a todo ello, por resolución de alcaldía de 19 de diciembre de 2025 se ha resuelto:

Primero. Aprobar la bolsa de trabajo para el nombramiento de personal funcionario interino para puestos de Agente de la Policía Municipal, por orden de puntuación obtenida por cada aspirante.

Segundo. Publicar el presente acuerdo en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en la página web del Ayuntamiento de Eibar.

Contra el presente acuerdo, que es definitivo y pone fin a la vía administrativa, se podrá interponer recurso contencioso-administrativo o cualquier otro recurso que se estime procedente ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su notificación y/o publicación.

No obstante, con carácter potestativo y previo al recurso contencioso-administrativo señalado anteriormente, contra este acuerdo se podrá interponer recurso de reposición ante el mismo órgano que lo ha dictado, en el plazo de un mes, que se contará desde el día siguiente al de su notificación y/o publicación.

Eibar, a 19 de diciembre de 2025.—El alcalde, Jon Iraola Iriondo.
(8833)